

EZBEHARRA AIREAN



JULES VERNE

© Marjinalia Bilduma
1999. urtea
Lege-Gordailua: SS-1015 /99

185...(e)ko irailean Frankfurt am Main-era heldu nintzen. Nire igoera aerostatikoak zirela-eta, Alemaniako hiri nagusietan zehar egindako erakustaldia ezin arrakastatsuagoa izan zen. Hala ere, ordura arte Konfederazioko inork ez zidan ontzitxoan lagundu nahi izan, eta Green, Eugenio Godard eta Poitevin jaunek Parisen egindako esperimentu bikainek artean ez zituzten alemaniar burutsuak aireko bideetan zehar ausartzera bulkatu.

Dena den, Frankfurt-en laster egin behar nuen igoeraren berri zabaldu bezain laster, hiriko hiru pertsona ospetsuk nirekin etortzeko eskaera egin zuten. Bi egun barru abiatzekoak ginen Comedia plazatik. Nire globoa berehala prestatzera lehiatu nintzen. Zetazkoa zen, gutapertxak egina — gai honen aurka ezer gutxi egin dezakete azidoek eta gasek, erabat iragazkaitza baita, eta duen bolumenari esker (hiru mila metro kubikokoa) altuerarik handienak har zitzakeen.

Igoeraren eguna iraileko azoka-egun handiarena izan zen, kanpotik etorritako lagun asko baitatoz egun horretan. Argiztapen-gasa, kalitate apartekoa eta indar igogarri handikoa, oso baldintza onetan eskuratu zidaten, eta goizeko hamaikak aldean globoaren hiru laurdenak puzturik zeuden, ezinbestekoa den urratsa alegia, zeren globoa igo ahala, geruza atmosferikoen dentsitatea jaitسي eta

aparatu barruko fluidoak elastikotasun handiagoa hartzen du; horren ondorioz, estalkia puskatzeko arriskua handiagoa delarik.

Eguerdiz abiatu behar genuen. Jendetza urduriaren gaineko ikuspegia benetan ederra zen; erresebatutako esparruaren inguruan pilatuta zegoen: plaza osoa hartu, alboko kaleetatik gainezka egin eta plazako etxeak tapizatu egiten zituen beheko oinetik teilategaletaraino. Aurreko egunetako haizete handiak bareturik zeuden, eta hodeirik gabeko zerutik sargoria jaisten zen. Haizeboladarik batek ere ez zuen atmosfera astintzen. Halako eguraldiarekin, bazitekeen igotzen hasitako leku beretik jaistea.

Hirurehun libra harea neramatzan, hainbat zakutan bananduta; ontzitzoa erabat biribila zen, lau oin diametrokoa eta hiru sakonekoa, eta eroso jarrita zegoen; honi eusten zion kalamuzko sarea simetrikoki hedatzen zen globoaren goi-hemisferioan zehar; iparrorratza bere lekuan zegoen; barometroa sostengu-lokarrietan bildutako eraztunetik zintzilikatzen zen, eta aingura arretaz prestatuta zegoen. Beldurrik gabe abia gintezke.

Esparru inguruan pilatutako pertsonen artetik aurpegi zurbileko mutil bati erreparatu nion, asaldatua zirudien-eta. Hura ikusteak zirrara handia eragin zidan. Sarritan joaten zen nire igoaldiak ikustera —Alemaniako hainbat hiritan topatu nuen—. Antz urduria zerakutsan, eta lurretik

zenbait oinetara geldi zetzan makina bitxiari irrikaz begiratzen ziola, isilik zirauen gainerako ikusleen artean.

Hamabiak jo zuten. Ordua zen. Nire bidaiakideak ez ziren agertzen.

Haien etxera mandatu bana igorri nuen, eta jakin nuenez, bata Hamburg-era joana zen, bestea Vienara eta hirugarrena Londresera. Gaur egungo aeronauten trebeziari esker jadanik arriskutsuak ez diren txango horietako bati ekiteko orduan, bihotzak huts egin zien antza. Neurri batean emankizunaren zati zirenez, konpromezua zintzo betetzera behartuko zituztela pentsatuko zuten; beraz, oihala jaso baino lehen, ahalik urrunen egin zuten ihes. Noski, horien adorea beren abiaduraren araberakoa izan zen... hanka egiteko orduan!

Iruzurra ikusita, jendetza humore txarrean zegoen. Bakarrik abiatzeko ez nuen zalantzarik izan. Globoaren pisu espezifikoarene eta eraman behar nuen pisuaren arteko oreka berriro ere finkatu nahirik, harea-zakuak jarri nituen nire bidaiakideen lekuan eta ontzitxo barrura sartu nintzen. Hamabi gizonen, beste horrenbeste lokarritz aparatuari zirkulu ekuatorialetik eusten ziotenek, sokak piska bat laxatu eta globoa lurretik oin batzuk bereizi zen. Haize-boladarik txikiena ere ez zebilen, eta atmosfera bazirudien zeharkaezina izango zela, beruna bezain astuna.

—Dena prest? —hots egin nuen.

Gizonak gertu ziren. Azkeneko aldiz gauzak ikuskatu eta gero, lasai abia nintekeela ikusi nuen.

—Adi!

Jendetzaren artean halako nahasmendu bat izan zen, eta esparrua inbaditzen zutela iruditu zitzaidan.

—Aska ezazue dena!

Globoa poliki-poliki igotzen hasi zen, baina ontzitxo barrura bota ninduen astinaldia jasan nuen.

Jaiki nintzenean, ustekabeko bidaiari baten aurrean suertatu nintzen: aurpegi zurbileko mutil baten aurrean, hain zuzen.

—Agur egiten dizut, jauna —esan zidan patxada handiz.

—Zer eskubide duzu...?

—Hona sartzeko...? Bota ezin nauzunez, ez dut beste eskubiderik behar.

Ni harri eta zur nengoen. Zerakutsan lasaitasunak txindituta uzten ninduen, eta ez nekien zer erantzun.

Arrotzari begiratu nion, baina nire txundidurak ez zion axola handirik eman.

—Oreka galtzeko arriskua dagoela uste duzu? Zure baimenaz...

Eta nire baieztapena itxaron gabe, bi harea zaku espazioan botaz globoa arindu zuen.

—Jauna! —esan nion orduan, har nezakeen jarrera bakarra hartuz—. Etorri zarenez... geratu egingo zara... baina globoa gidatzeko zeregina, niri baino ez dagokit!

—Jauna —erantzun zuen—, zure heziera guztiz frantsesa da. Herkideak gara. Zuk ukatzen didazun bostekoa moralki estutzen dizut. Har itzazu zure neurriak eta joka ezazu hobekien deritzon moduan. Zuk amaitu arte itxarongo dut...

—Zertarako?

—Zurekin hitz egiteko.

Barometroak hogeita sei hazbetetik behera egin zuen.

Hiri gainera seirehun bat metroko altueran geunden, baina ezerk ez zuen agerian jartzen globoaren mugimendu horizontala, airezko masa baitzebilen berarekin batera. Berotasun lainotsu antzeko zerbaitek gure oinetan ikusten genituen

objektuak bainatu eta zalantza tamalgarria jaurkitzen zuen zilueten aurka.

Nire lagun berria osterara ere aztertu nuen.

Hogeita hamar urte inguruko gizona zen, apal jantzita. Aurpegiko soslai hezurtsu eta zakarrak pertsona kementsu eta menderagaitza jartzen zuen agerian eta bazirudien benetan indartsua zela. Igoera isilak eragiten zion harriduraz zeharo miretsita zihoan, geldi eta multzo lainotsu batean nahasita agertzen ziren objektuak bereizi nahain.

—Hau bai zoritxarreko txantxa! —esan zuen une baten ondoren.

Ez nuen erantzun.

—Gorroto nauzu! —esan zuen berriro—. Bo! Nik ezin nuen bidaia ordaindu, eta isilkamisilka sartu behar izan dut zure globoan.

—Inork ez dizu jaisteko agindu, jauna.

—E! Ez al dakizu antzeko zerbait gertatu zitzaizela Laurencin eta Dampierre kondeei Lyon-en 1784eko urtarrilaren 15ean lehen aldiz globoz igo zirenean? Fontaine delako merkatari gaztea haien ontzixora igo zen eta iraultzeko zorian egon ziren... Bidaia amaitu zuten eta ez zen inor hil.

—Lurreratzen garenean, lasaiago hitz egingo dugu —erantzun nion piska bat haserre nirekin erabiltzen zuen ahots burlatia zela-eta.

—Bo! Ez dugu itzuleran pentsatu behar!

—Orduan, zure ustez denbora luzea pasako al da jaisten hasi baino lehen?

—Jaitsi? —esan zuen harrituta—. Jaitsi? Has gaitezen lehenik igotzen.

Eta, nik ezer egiterik izan baino lehen, bi zaku harea bota zituen ontzitxo gainetik, barrutik hustu ere egin gabe.

—Jauna! —hots egin nuen suminduta.

—Zure trebeziaz jakitun naiz —erantzun zuen lasai ezezagunak—, eta badakit zure igoaldi arrakastatsuek oihartzun handia izan dutela; baina, esperientzia praktikaren ahizpa baldin bada, teoriarekin ere badu halako ahaidetasun bat, eta nik azterketa sakonak eginak dauzkat aerostatikaren arteari buruz. Horrek zentzua galarazi dit! —erantsi zuen goibel eta kontenplazio mutuan erorita.

Globoa osterera ere igo eta gero, geratu egin zen.

Ezezagunak barometroari begiratu eta esan zuen:

—Dagoeneko zortzirehun metrora gaude. Gizakiak intsektuak direla ematen du. Nire ustez ondo legoke beti altuera honetatik beren buruak ikusiko balituzte, euren benetako tamainaren berri jakingo zuten-eta —Komedia plazak inurritegi itzela zirudien—. Ikusten al duzu karel inguruan pilatutako jendetza eta Zeil gero eta txikiagoa dela? Dom elizaren gainean gaude. Main ibaiak hiria bitan banatzen duen lerro zuriska baino ez da, eta Mein-Brucke zubia badirudi ibai-ertzetan gurutzaturiko haria dela.

Atmosfera piska bat hozturik zegoen.

—Edozer egingo nuke zugatik, nire ostalari hori! —hots egin zuen nire kideak—. Hotz bazara nire arropa erantzi eta zuri utziko dizut.

—Eskerrik asko —erantzun nuen lehor.

—Bo! Beharra da lege. Ekarzazu bostekoa. Aberkideak gara. Gauza asko ikasiko dituzu nirekin. Eman dizudan atsekabea nire hizketak arinduko dizu.

Erantzun gabe eseri nintzen, ontzitxoaz bestaldean. Gazteak longainetik koaderno lodi bat atera zuen. Aerostatikari buruzko lana zen.

—Gure aire-maniei buruz egindako grabatu-eta karikatura-bildumarik bitxienean daukat —esan

zidan—. Zenbat mirespen eta zenbat iseka hartu dituen asmakizun miresgarri honek! Zorionez, Montgolfier-tarrak lurrunezko hodei artifizialak egiten saiatzen zireneko garaiak urrun daude; izan ere, gaitasun elektrikoak zeuzkan gasa asmatu nahian zebiltzaten, bustitako lastoa eta birrindutako artilea erretzen produzitzen zutena.

—Asmatzaile horien meritua gutxiestera ausartzen al zara? —erantzun nion haien alde eginez—. Airean gora igotzea posible zela frogatu zuen esperimientua ez al da berez nahikoa?

—Eta nork ukatzen du, jauna, lehen aire-nabigatzaileen loria? Aparteko kemena behar da halako aparatu ahulekin igotzeko, aire beroa baino ez zuten-eta. Baina Blanchard-en lehen igoaldi haiez geroztik, hau da, azken ehun urteotan, zientzia aerostatikoak urrats asko eman al dituen galdetzen dizut nik. Ikusi hau, jauna.

Ezezagunak bere bildumatik grabatu bat atera zuen.

—Hona hemen —esan zidan— Pilatre de Rosiers-ek eta Arlandes markesak airez egindako lehen bidaia, globoen aurkikuntza egin eta lau hilabetera burutua. Luis XVI.ak bidaia hura egiteko baimena ez zuen eman nahi, eta proposatu zuen heriotzara zigortutako bi preso lehen aire-espedizioetan bidaltzea. Pilatre de Rosiers halako bidegabekeriaz haserratu zen eta azpikerian

jardutearen poderioz abiatzea lortu zuen. Maniobrak errazten dituen ontzitxo hau artean asmatu gabe zegoen, eta montgolfieraren barnealde estuaren inguruan galeria zirkular bat agertzen zen. Bi argonautek, beraz, geldi-geldi egon behar izan zuten, bakoitza bere galeriaren muturrean, hura butxatzen zuen asto bustiak ez baitzien mugimendurik egiten uzten. Globoaren zulo azpitik zintzilik labeska zegoen, suarekin; bidaiariek igo nahi zutenean, labeska horretan astoa botatzen zuten, makinari su emateko arriskua bazegoen ere, eta berotutako aireak igotzeko indar handiagoa ematen zion globoari. Bi nabigatzaile ausartek 1783ko azaroaren 21ean abiatu ziren Jardins de la Muette-tik, Delfinak haien esku jarri baitzituen. Globoak handitasunez egin zuen gora, Île des Cygnes-i inguratu, Conférence-tik Sena zeharkatu, eta Invalides-ko kupularen eta École Militaire artean igaroz, Saint-Sulpice-ra hurbildu zen. Orduan, aeronautek sua piztu, zumardia zeharkatu eta L'Enfer-reko langaz harantzago jaitsi ziren. Lurra ukitu zutenean, globoa zapaldu zen eta une batez Pilatre de Rosiers harrapatu zuen tolesduren artean.

—Zoritxarreko seinalea! —esan nuen, hain hurbiletik zihoazkidan zehaztasun haietan interesaturik.

—Gizarajoari geroago bizia kenduko zion hondamenaren seinalea! —erantzun zuen

ezezagunak goibel—. Zuk ez al duzu inoiz horrelakorik sentitu?

—Inoiz ez!

—Bo! Zoritxarrak aurretiko seinalerik gabe ere gerta daitezke! —erantsi zuen nire kideak.

Eta isilik geratu zen.

Bien bitartean, Sud aldera gindoazen, eta jada ez genuen gure oinetan Frankfurt hiria ikusten.

—Beharbada, ekaitz gogorra izango dugu —esan zuen gazteak.

—Lehenago jaitsiko gara —erantzun nuen.

—Ikusi behar da hori! Hobe gehiago igotzea; horrela, errazago eskapatuko gara.

Eta hori esanik, espaziora beste bi zaku harea bota zituen.

Globoa azkar-azkar igo eta mila berrehun metrotan gelditu zen. Hotz handixea nabaritu genuen; hala ere, eguzki-errainuek bildukia betebetean jotzen zutenez, gasa dilatatu eta globoaren indar igogarria handiagotu zen.

—Ez izan beldur —esan zidan ezezagunak—. Hiru mila eta bostehun toesa aire

arnasgarri ditugu. Osterantzean, ez kezkatu egiten dudana.

Zutik jarri nahi izan nuen, baina esku kementsu batek eserlekura bihurtu ninduen.

—Zure izena? —galdetu nion.

—Nire izena? Zer axola dizu?

—Jakin nahi dut!

—Erostrato, edo Enpedokles dut izena, nahi duzun bezala.

Erantzuna ez zen bat ere lasaigarria izan.

Ezezagunak, bestalde, halako odol hotzean hitz egiten zuen, ezen, noren aurrean ote nengoen galde egiten bainion nire buruari artega.

—Jauna —jarraitu zuen—, Charles fisikariak geroztik ezer berririk ez da asmatu. Globoen aurkikuntza egin eta lau hilabetera, gizon honek hainbat asmakizun egin zituen: balbula, globoa puztuegi dagoenean edota jaitsi nahi denean gasa ateratzen uzten duena; ontzitzoa, maniobra errazten duena; sarea, aparatua bildu eta zama azal osoan banatzen duena; lasta, igotzea eta lurreratzeke lekua aukeratzea uzten duena; kautxuzko geruza, ehuna iragazkaitza izan dadin; barometroa, hartzen den altuera adierazten duena.

Azkenik, Charlesekin hidrogenoa erabili zuen, airea baino hamalau aldiz pisu txikiagokoa denez, geruza atmosferikorik altuenetara iristeko aukera ematen du, aireko errekuntzak dakartzan arriskuak saihestuz. 1783ko abenduaren 1.ean, hirurehun mila ikusle pilatu ziren Tuileries-en inguruan. Charles gora igo zen eta soldauek armekin agur esan zioten. Bederatzi legoa egin zituen airez, eta gaur egungo aeronautek gainditu ez duten trebezia zuzendu zuen globoa. Erregeak bi mila liberako pentsioa eman zion, garai hartan asmakizunak babesten zituztelako.

Orduan, ezezaguna nahiko artega zegoela iruditu zitzaidan.

—Nik, jauna —erantsi zuen—, gaia aztertu dut eta konbentziturik nago lehendabiziko argonautak euren globoak zuzentzeko gai zirela. Blanchard bazterrean utzita ere —berak egindako baieztapenak zalantzagarriak izan daitezkeelako—, Guyton-Morbeaux-ek arraunen eta gobernallearen laguntzaz, mugimendu nabarmenak eta norabide zehatzak eman zizkion bere tramankuluari. Aspaldi honetan, Julien izeneko Parisko erlojugileak esperimentu eztabidaezinak burutu ditu hipodromoan; zeren mekanismo berezi bati esker, bere aparatua, itxuraz oblongoak, argi eta garbi jo baitu haizearen aurka. Petin-ek hidrogenozko lau globo biltzea pentsatu du, eta horizontalki eta erdi zabalduriko bela batzuen bitartez, aparatua inklinatuz norabide zehar hara helaraziko dion oreka

haustea lortu nahi du. Korronteen indarra garaituko duten motoreak ere aipatzen hasiak dira, esaterako, helizea; baina ez du emaitza onik emango, horren ingurunea higikorra delako. Ni, jauna, globoak zuzentzeko bidea aurkitu duen bakarra naiz, eta ez dut lagunduko didan akademiarik kausitu, ez nire izenemate-zerrenda osatuko didan hiririk ez entzun nahi izango didan gobernurik ere. Hori bai doilorkeria!

Ezezagunak keinuka jarduten zuen eta ontzitxoak kulunka gogorak jasaten zituen. Nekez lortu nuen hura lasaitzea.

Bien bitartean, globoak korronte azkarragoa aurkitu eta hegoalderantz abiatzen zen, mila eta bostehun metroko altueran.

—Hor behean dago Darmstad —esan zidan bidaiakideak ontzitxoaren gaintik makurtuta—. Zure gaztelua ikusterik ba al duzu? Ez oso garbi, ezta? zer nahi duzu, ba? Ekaitz-kolore horrek objektuak zirriborratzen ditu eta beharrezkoa da lekuak ezagutzeko begi zolia izatea.

—Ziur al zaude Darmstad dela? —galdegin nion.

—Dudarik gabe; eta Frankfurt-etik sei legoara gaude.

—Orduan jaitsi beharra dago.

—Jaitsi! Ez al duzu kanpandegien gainean lurreratu nahi izango, ezta? —esan zuen ezezagunak barrez.

—Ez; hiriko ingurumarietan.

—Bada orduan alde egin dezagun kanpandegietatik.

Eta hori esanda, nire bidaiakideak beste zaku bat harea jaso zuen. Haren aurka oldartu nintzen baina lurrera bota ninduen eta globoa arinduta bi mila metroraino igo zen.

—Zaude geldi —esan zuen—, eta gogoan izan Brioschi-k, Biot-ek, Gay-Lussac-ek, Bixio-ek eta Barral-ek altuera handiagoetara jo izan dutela esperimentu zientifikoak egitera.

—Jauna, jaitsi beharra dago —ihardetsi nion hura gizalegez konbentzitu nahian—. Ekaitza dugu gainean. Ez litzateke zuhurra izango...

—Bo!, ekaitzetik gora igoko gara eta ez digu kalterik egingo. Zeinen ederra den lurra mehatxatzen duten hodei horiek menderatzea! Ez al da ohore handia airezko olatuen gainetik honela nabigatzea? Pertsonaiarik handienek bidaiak egin dute guk bezala. Montalenbert-eko markesa eta kondesa, Podenas-eko kondesa, La Garde andereñoa eta Montalembert-eko markesa St-

Antoine auzotik abiatu ziren urrutiko hondartzetara, eta Chartres-eko dukeak trebezia eta ausartasun paregabeak erakutsi zituen 1784ko uztailaren 15ean egin zuen igoeran. Lyon-en Laurencin eta Dampierre kondeek; Nantes-en Luynes-ko jaunak; Bordelen D'Arbelet des Granges-ek; Italian, Andreani zaldunak, eta gure egunotan Brunswikeko dukeak, airean utzi dute euren loriaren arrastoa. Pertsonaia handi horien maila berean egoteko, beharrezkoa da zeruko sakoneretatik gorago igotzea. Infinitura hurbiltzea hura ulertzea da!

Airearen arrarifikazioaren eraginez, globoko hidrogenoa nahiko dilataturik zegoen, eta saioaren ondoren behealdea hutsik geratu zenez, balbula irekitzea nahitaezkoa zela ikusi nuen; zoritxarrez, nire bidaiakideak erabakita zeukan globoa nik nahi nuen bezala gobernatzen eragozte. Beraz, balbularen lokarritik disimuluz tiratzea erabaki nuen, hura hizketan entretenituta ikusten nuen bitartean, barruntatzen hasita bainengoen nori egin behar nion aurre. Ordubata laurden gutxi izango ziren. Frankfurt-etik atera ginenetik berrogei minutu joanak ziren eta inguratzeko mehatxua egiten ziguten hodeitzar batzuk heldu ziren hegoaldetik.

—Zure konbinaketak arrakastaz ezartzeko itxaropenik oro galdu al duzu? —galde egin nion oso interesatua zen... interesaz.

—Itxaropenik oro? —erantzun zuen ezazagunak zakar—. Gaitzespenek eta isekek

zaurituta, astoek eman didaten ostikoek jota, hondaturik nago. Berritzaileei eskainitako betiko oinaze amaigabea da. Ikus itzazu nire zorroan gordetzen ditudan garai guztietako karikaturak.

Nire kideak bere paperen artean ikuskatzen zuen bitartean, oharkabean balbularen lokarriari heltzea lortu nuen. Pentsatzekoa zen, hala ere, gasa eskapatzean ur-zorrotada antzeko zarata ateratzen duen txistuari erreparatuko ziola.

—Zenbat txantxa egin dituzten Miolan apaizaren lepotik! —esan zuen—. Janninet-ekin eta Bredin-ekin igo behar zuen. Hartan ari zirela, montgolfierak su hartu eta jende ezjakin hutsak suntsitu egin zuen. Eta ondoren, *animalia bitxien* karikaturetan *Miaularia*, Joan Kolpeka eta Gonzaletxo deitu zioten.

Balbulatik tiratu eta barometroa igotzen hasi zen. Garaiz egin nuen, hegoaldeetik trumoi-hotsa aditzen zen-eta.

—Ikus ezazu beste marrazki hau —erantsi zuen ezezagunak, nire maniobrez ohartu gabe—. Berekin untzi bat, gotorlekuak, etxeak e.a. daramatzen globo eder bat irudikatzen du. Karikaturizatzaileek uste omen zuten halako ergelkeriak beti hori izango zirela, karikaturak alegia. Baina horra hor, egia bihurtu dira. Untzi honek denetik dauka: ezkerrean gobernalle kabinaduna, pilotuentzako tokiarekin; brankan

jorsketa-lekuak, organo erraldoia eta lurreko edo ilargiko biztanleei abisu moduan balio behar zien kanoia; txopa gainean behatokia eta globo/txalupa; zirkulu ekuatorialean troparen koartelak; ezkerrean farola eta paseatzeko balio zuten goiko galeriak, belak eta hegalak barne; azpian kafetegiak eta bizigaien biltegi nagusia. Miretsi zaitezte iragarki harroputz honetaz: «Gizakion zorionerako asmatua izan den globo hau etengabe abiatuko da Ekialdeko eskaletarantz, bai poloetarantz bai Mendebalde-muturretarantz. Ez dago ezertaz kezkatu beharrik; dena pentsatuta dago eta dena joango da ongi. Tarifa zehatza egongo da bidaia-lekuen arabera baina prezioak berdinak izango dira gure hemisferioko lekurik urrunetara joateko, hau da: mila luis edozein bidaiaren truke. Eta esan daiteke diru-kopuru hau nahiko apala dela, globoak eskainiko dituen azkartasuna, erosotasuna eta dibertimendua kontuan hartuta, batek irudika dezakeen guztia egongo baita bertan. Hori guztiz egia da; esaterako, batzuk gelditu dauden bitartean beste batzuk dantzan arituko dira; batzuek bapote jan eta besteek barau; jende zorrotzarekin hitz egiten distraitu nahi duenak izango du norekin hitz egin; astakiloek ere euren parekoa aurkituko dute. Beraz, plazerra izango da aire-gizartearen arima.». Xelebrekeria hauek barre ugari eragin dituzte... Baina nire egunak motzak ez balira, laster ikusi beharko genituzke proiektu horiek guztiak errealitate bihurtuta.

Nabarmen jaisten ari ginen eta bera ez zen ohartzen.

—Ikustazu globo-jolas antzeko hau — jarraitzen zuen, bildumatuta zeuzkan eta gutxi ez ziren irudi haietako zenbait nire aurrean jarritz—. Joko honek arte aerostatikoaren historia osoa laburbiltzen du. Goi-mailako izpirituen gozamenerako da eta jokatzeko erabiltzen diren dado eta fitxen prezioa finkatu eta iristen zaren laukiaren arabera ordaindu eta pagatzen dira.

—Ikusten dudanez —esan nion—, badirudi aerostazioari buruzko zientzia sakon ikasi duzula, ezta?

—Bai, jauna, bai. Faeton-en, Ikaro-ren, Architas-en garaiez geroztik den-dena ikertu, konpultsatu eta ikasi dut. Jainkoak bizia luzatuko balit, arte aerostatikoak zerbitzu handiak emango lizkioke munduari; zoritxarrez, hori ez da gertatuko.

—Zergatik ez?

—Enpedokles edo Erostrato deitzen naizelako.

Bien bitartean, globoa zorionez lurrera hurbiltzen zihoan; erorketak dakarren arriskua, ordea, orobat larria da ehun urratsetara zein bost mila urratsetara.

—Gogoan al duzu Fleurus-eko bataila? —
ihardetsi zidan nire bidaiakideak, zeinaren aurpegia
animatzen hasi baitzen—. Bataila horretan
Coutelle-k, gobernuaren aginduz, aerostazio-
konpainia bat eratu zuen. Maubeuge-ko setioan,
Jourdan jeneralak behaketa-sistema honetatik lortu
zituen abantailak hain handiak izan ziren, ezen,
egunean bi alditan eta jeneral berarekin, Coutelle
airean zehar igotzen baitzen. Aeronautaren eta
globoari eusten ziotenen arteko komunikazioa
banderatxo zuri, gorri eta horien bitartez
egiaztatzen zen. Sarritan kanoikada eta tiroak jaurki
zituzten globoaren aurka, baina emaitzarik gabe.
Jourdan Charleroi-ri erasotzeko prestatu zenean,
Coutelle borroka-zelaitik hurbileko leku batera
joan, Jumet lautadatik igo eta zortzi orduz igaro
zituen behaketa-lanetan Morlot jeneralarekin, eta
hori laguntza handikoa izan zen, zalantzarik gabe,
Fleurus-eko garaipena lortzeko. Eta, izan ere,
Jourdan jeneralak erreparorik gabe aldarrikatu zuen
behaketa aeronautikoekin zorretan zegoela. Beno
bada, orduko zerbitzuak eta Belgikako
kanpainakoak gora-behera, globoen lasterketa
militarrak hasi behar zuen urtean, bertan gelditu
zuten. Eta gobernuak Meudon-en zabaldutako
eskola, Bonapartek itxi zuen Egiptotik itzuli
zenean. Hala eta guztiz ere, zenbat ez zen espero
izatekoa ume jaiio berriaz! «Umea bideragarri jaiio
zen —esan zuen Franklin-ek— eta hura itotzeko
beharrik ez zegoen».

Ezezagunak bekokia eskuen aurka eutsi, une batzuz gogoeta egin, eta azkenik, burua jaso gabe, esan zuen:

—Jauna, nire debekuari muzin eginez, balbula ireki duzu.

Lokarria askatu nuen.

—Zorionez —erantsi zuen—, oraindik ere hirurehun libera harea dauzkagu.

—Baina zer egiteko asmoa duzu, gero? — esan nuen orduan.

—Ez duzu inoiz itsasoen gainetik jauzi egin? —galdetu zidan.

Zurbildu egin nintzen.

—Tamalez —jarraitu zuen— Adriatiko itsasora jo behar dugu nahitaez. Hori erreka baino ez da! Baina, ez al ditugu gorago beste korronte batzuk aurkituko?

Eta niri begiratu gabe globoa zaku batzuen pisuaz arindu eta jarraian esan zuen ahots mehatxugarritz:

—Balbula irekitzen utzi dizut gasaren dilatazioa dela-eta globoa lehertzeko arriskua

zegoelako; baina ez ezazu zortea birritan tentatu, gero!

Eta aurrera jarraitu zuen honela:

—Blanchar-ek eta Jefferies-ek Douvres-etik Calais-era egin zuten bidaiaren berri izango duzu, noski. Bikaina da. 1785eko urtarrilaren 7an, iparmendebaldeko haizeak jotzen zuela, globoa gasez puzteari ekin zioten Douvres-eko kostan. Ozta-ozta hasiak ziren igotzen, halako batean, oreka-oket baten erruz lasta botatzera beharturik egon ziren, eta hogeita hamar liberarekin baino ez ziren geratu.

«*Zer egingo dugu orain?*» —esan zuen Jefferies-ek.

«*Bidearen hiru laurdenak falta zaizkigu oraindik*» —erantzun zuen Blanchard-ek—, «*eta ez gaude oso altu. Igoz gero, agian aldeko haizeak aurkituko ditugu*».

«*Bota dezagun geratzen zaigun hareara*».

—Globoak indar igogarri piska bat hartu zuen, baina laster behera egin zuen berriro. Bidaiaren erdian, aeronautek liburuak eta tresneria bota behar izan zituzten. Ordu laurden baten ondoren, Blanchard-ek Jefferies-i esan zion:

«*Barometroa?*».

«Gora! Gureak egin du... Zaude, hortxe dago Frantziako kostaldea!»

—Zarata ikaragarria entzun zen.

«Globoa urratu al da?» —galdetu zuen Jefferies-ek.

«Ez. Gasaren galerak hutsik utzi du behealdea; baina jaisten jarraitzen dugu. Gureak egin du. Bota dezagun balio ez duena!»

—Jatekoak-eta bota zituzten itsasora. Aeronautak 100 metroko altueran baino ez zeuden.

«Igotzen ari gara berriz?» —esan zuen doktoreak.

«Ez, pisua murrizteak eragindako bulkada baino ez da. Eta itsasontzirik bat ere ez dago inguruan, ezta txaluparik ere horizonte osoan! Bota ditzagun gure arropak itsasora!»

—Zorigaiztokoak biluztu egin ziren: baina globoa behera eta behera zihoan.

«Blanchard» —esan zuen Jefferies-ek—, «bidaia bakarrik egin beharko zenukeen. Zurekin joaten utzi zenidan; beraz, neure burua sakrifikatu egingo dut. Uretara jaurkiko naiz eta globoa igoko da».

«Ez, ez! Hori ikaragarria da».

—Globoak husten jarraitzen zuen, eta tximistorratz moduan balio zion ahurtasunak gasa estalkiaren aurka estutu eta ihesaldia areagotzen zuen.

«Agur, ene laguna!» —esan zuen doktoreak—. «Zeruak babes zaitzala».

—Jaurkitzera zihoanean, Blanchard-ek geldiarazi zuen, esanez:

«Aukerarik badugu oraindik. Ontzitzoa sostengatzen duten lokarriak moz ditzakegu eta sareari heldu. Agian globoak gora egingo du. Egon gaitezen prest... Begira... barometroa behera doa... Gorantz goaz. Haizea indarturik dator. Salbaturik gaude!»

—Bidaiariek Calais hiria ikuskatu zuten. Haien pozkarioa eldarnio hutsa izan zen. Eta handik gutxira, Guines-ko basoan hartu zuten lurra.

—Ziur nago —erantsi zuen ezezagunak— halako egoera batean zuk ere jarraituko duzula Jefferies doktorearen etsenplua.

Hodeiak gure aurrean hedatzen zihoazen multzo liluragarriak osatuz. Globoak itzal dilatatuak proiektatzen zituen hodei-pilaketa haren

gainean eta argi-koroa batez inguraturik zegoela ematen zuen. Trumoiak ontzitxoaren azpitik egiten zuen burrunba. Hura guztia izugarria zen.

—Jaits gaitezen! —hots egin nuen.

—Jaitsi! Eguzkia han gure zain egonda?
Lasta gehiago kanpora!

Eta globoak berrogeita hamar liberatik gorako pisua galdu zuen.

Hiru mila eta bostehun metrora geundela, geratu egin ginen. Ezezagunak etengabe hitz egiten zuen. Ni erabat txundituta nengoen; bera, ordea, bere saltsan zegoela ematen zuen.

—Haizea lagun, urrun iritsiko gara —hots egin zuen—. Antilletan ehun legoa orduko hartzen dituzten aire-korronteak daude. Bonaparte koroatu zutenean, Garnerin-ek kolorez argiztaturiko globo bat jaurki zuen gaueko hamabietan. Haizeak iparrekialdera jotzen zuen. Biharamonean, egunsetiarekin, Erromako biztanleek agur esaten zioten San Pedroko kupularen gainetik pasatzen ari zenean. Gu urrunago eta altuago helduko gara.

Nik apenas entzun nezakeen. Den-dena burrunba zen nire inguruan. Bat-batean, hodeiak urratu ziren.

—Ikusten al duzu hiri hori? —esan zuen ezezagunak—. Espira da.

Rhin ibaiak, zabala izan arren, askaturiko xingola zirudien. Gure buruen gainetik, zerua urdin iluna zen. Txoriek askoz lehenago utzi gintuzten, aire arrarotu hartan ezinezkoa egiten baitzaie hegan egitea. Espazioan bakarrik geunden eta ni ezezagunaren aurrean.

—Alferrik saiatuko zara nora eramaten zaitudan jakiten —esan zuen orduan, eta iparrorratza espaziora jaurki zuen—. A! Zeinen ederra den beroketa on bat! Dakizunez, gaur egun biktima gutxi kontatzen dira aerostazio-alorreen, Pilatre des Rosiers-ekin hasi eta Gale tenientearekin buka, eta zorigaitz guztiak gertatzen dira zuhurtziarik ezaren erruz. Pilatre des Rosiers Romain-ekin abiatu zen Boulogne-tik, 1785eko ekainaren 13an. Gas-globotik aire beroa ematen zuen montgolfiera zintzilikatu zuen, gasa galdu edota lasta botatzeko beharrik ez izateko, noski. Barril bolbora baten azpian su txikia egitea bezalakoa izan zen! Zoroak laurehun metrora heldu zirenean, itsasora eramanean zituzten aurkako haizeek harrapatuta geratu ziren. Jaisteko, Pilatre-k globoaren balbula ireki nahi izan zuen, baina lokarria korapilatu zen eta globoa urratu zuen, halako moldez, non unetxo batean hustu egin baitzen. Montgolfieraren gainean erori, birak emanarazi eta zoritxarrekoak berekin arrastratu

zituen, segundu gutxitan suntsituta geratu arte. Hori ikaragarria da, ezetz?

Hitz hauek baino ezin izan nituen ahoskatu erantzun moduan.

—Erruki izan, jaits gaitezen!

Hodeiek alde guztietatik inguratzen gintuzten eta globoaren barrunbean eragina zuten detonazio izugarriak gurutzatzen ziren gurekin.

—Gogaikarria zara —hots egin zuen ezezagunak—, eta ez duzu gehiago jakingo jaitsi edo igotzen garen.

Eta barometroa iparrorratzarekin biltzera joan zen, zaku harea batzuekin batera. Bost mila metroko altueran-edo egongo ginen. Izotz-burduntzi batzuk ontzitxoari atxikita ikusten ziren, eta elur fin antzeko zerbaitek hezurretaraino blaitzen ninduen. Bien bitartean, ekaitz izugarri gogorra lehertu zen; zorionez, gu altuago gindoazen.

—Ez izan beldur —esan zidan ezezagunak—. Zoroak baino ez dira biktimak. Olivari, Orléans-en hil zena, paperezko montgolfiera zeramala aireratu zen; orratza, sutontziaren gainetik zintzilikatuta eta erregaiz lastatuta, suak hartu zuen: erori eta hil zen Olivari. Mosment Lille-n xafla arin batean igo zen; kulunka

baten eraginez oreka galdu zuen: erori eta bertan hil zen Mosment. Bittorf-ek, Maheim-en, ikusi zuen bere paperezko globoa nola hasi zen sutan airean: erori eta hil zen Bittorf. Harris oso gaizki egindako globo batean igo zen, balbula handiegia zen eta ezin izan zuen itxi: erori eta hil zen Harris. Sadler-ek denbora luzea igaro zuen airean eta lastarik gabe geratu zen; haizeak Boston hirira arrastratu eta hango tximinekin talka egin zuen: erori eta hil zen Sadler. Coking jausgailu ganbil batez jaitsi zen (haren ustez perfektua): erori eta hil zen Coking. Beno bada, nik zuhurtziaren ezaren biktimak diren horiek maite ditut eta haiek bezala hil nahi dut.

Gorago! Gorago! Nekrologia horren mamu guztiak igarotzen ziren nire begien aurretik. Airearen arrarifikazioak eta eguzki-errainuek gasaren dilatazioa areagotzen zuten, globoa etengabe igoaraziz. Pentsatu ere egin gabe, balbula irekitzen saiatu nintzen, baina ezezagunak lokarria moztu zuen nire burutik oin batzuetara. Ez nuen salbaziorik.

—Blanchard andrea erortzen ikusi al zenuen? —galdetu zidan—. Nik ikusi nuen, nik! Bai, nik! 1819ko uztailaren 6an Tivoli-n nengoan. Blanchard andrea globo txiki batez igo zenez, globoa erabat puztu behar izan zuen. Hori dela eta, gasak azpiko apendizetik ihes egiten zuen, benetako arrasto hidrogenikoa utziz. Ontzitzoaren azpian, burdin-hari batetik zintzilik, su artifizialez osaturiko aureola antzeko zerbait zeraman, sua

pizteko. Berak sarritan egindako esperimentua zen. Abiatu egin zen. Gau goibela zen. Suziria pizteko orduan, globotik ihes egiten zuen hidrogeno-arrastotik lantza pasatzeko arduragabekeria izan zuen. Nik begia harengan finkatuta neukan. Batabatean, ustekabeko dirdira batek ilunpeak argiztatu zituen. Aeronauta trebeak emandako sorpresa zela uste izan nuen hasieran. Dirdira handiagotu egin zen; gero, ustekabearen desagertu eta berriro ere aerostatoaren goialdean agertu zen su hartutako gas-zorrotada bailitzan. Zoritxarreko argitasun hura zumardian zehar eta Montmartre auzo osoan zehar proiektatu zen. Orduan, ikusi nuen zorigaitzoko emakumea jaikitzen zela eta globoaren apendizera bi aldiz konprimatzen saiatzen zela, sua itzaltzeko; gero, ontzitxoan eseri eta jaisten saiatu zen, ez zen jaisten eta. Gasaren errekuntzak minutu luzez iraun zuen. Globoak gero eta txikiagoa zen eta jaisten hasi zen, baina ez zen benetako jaitsiera. Haizeak iparrekialdetik jotzen zuen eta Paris alderantz zeraman. Garai hartan, Provence kaleko 16 zk.ko etxearen inguruan lorategi eskergak zeuden. Aeronauta han eror zitekeen arriskurik gabe. Baina, hura bai zoritxarra!, globoak eta ontzitxoak etxeko teilatu bakarraren kontra jo zuten. Aparatua teilatuan zehar labaindu zen, burdinazko kizki bat bidean aurkitu eta astinaldiaren ondorioz Blanchard andrea ontzitxotik kanpora egotzi eta kaleko zoruaren aurka amildu zen. Blanchard andrea han bertan hil zen.

Istorio horiek goitik behera izututa uzten ninduten. Ezezaguna zutik zegoen buruan kapelarik gabe, ilea laztuta, begirada galduta.

Gizon hartaz ilusio egiterik ez zegoen. Azkenik, egia hutsa azaldu zitzaidan begien aurrean. Aurrean nuen gizona burutik eginda zegoen.

Geratzen zitzaigun lasta jaurki zuen eta gutxienez bederatzi mila metro altu igo ginen. Sudurretik eta ahotik odola zeridan.

—Ezer ederragorik ba ote dago zientziaren martiriak izatea baino? —hots egin zuen zoroak—. Etorkizunak kanonizatu egiten ditu.

Baina nik ez nuen ezer entzuten. Zoroak bere inguruan begiratu eta belauniko jarrita belarrira hitz egin zidan.

—Eta Zambecarri-ren hondamendia, ahazturik al daukazu? Entzun. 1804ko urriaren 7an, eguraldiak onera egin zuen; eta antza denez, abiatzeko moduan zeuden. Aurreko egunetan euriteak eta haizeteak etengabeak izan ziren, baina Zambecarri-k iragarritako igoaldia ezin zitekeen gehiago atzeratu. Etsasiek iseka egiten zioten eta bidaia hura egitea behar-beharrezkoa zen, bai bere burua bai zientzia jendaurreko isekatik libre uzteko. Hori Bolognan gertatu zen. Inork ez zion globoa puzten lagundu. Gau erdian igo zen, Andreoli eta

Grossetti lagun zituela. Globoak poliki-poliki igo zen —auriak zulatuta zegoelako—, eta gasak ihes egiten zion. Hiru bidaiari ausartek ezin zuten jakin barometroak zer adierazten zuen eskuargi makal bati esker baizik, eta Zambecarrik hogeita lau ordu zeramatzan ezer jan gabe. Grassetti ere barau zegoen.

«*Lagunok*» —esan zuen Zambecarrik—,
«*hotzak eta nekeak jota nago. Nireak egin du*».

—Eta ia unean bertan konortea galdu zuen. Grossetti-rekin ere antzeko zerbait gertatu zen. Andreoli erne zegoen bakarra zen. Gogor saiatu eta gero, Zambecarri bere onera itzularaztea lortu zuen.

«*Zer berri? Nora goaz? Nondik jotzen du haizeak? Zer ordu da?*»

«*Ordubiak dira*».

«*Non dago iparrorratza?*»

«*Botata*».

«*Ene Jainkoa! Linternaren kandela itzaltzen hasi da*».

«*Aire arrarotu honetan piztuta egon ezin daitekeelako*» —esan zuen Zambecarrik. Ilargia artean ez zen ageri eta atmosfera izu-ikara antzekoan murgildurik zegoen.

«Hotz naiz, hotz naiz! Andreoli, zer egingo dugu?»

—Gizarajoak poliki-poliki jaitsi ziren hodei zuriska batzuetatik zehar.

«Ixo!» —esan zuen Andreolik—. «Aditzen al duzu?»

«Zer?» —erantzun zuen Zambecarrik.

«Halako zarata bat».

«Oker zabilta».

«Ez».

—Ikus itzazu bidaiari horiek gauaren erdian, zarata ulergaitz bat aditu nahian. Dorre baten aurka joko al dute? Teilatuetaik behera amilduko al dira?

«Aditzen al duzu? Itsasoaren zarata dirudi».

«Ezinezkoa!»

«Olatuen orroa da».

«Egia!»

«*Argia! Argia!*»

—Bost alditan alferrik saiatu ondoren, Andreolik argia piztea lortu zuen. Goizeko hirurak ziren. Olatuen marmarra indar handiz entzuten zen. Ia-ia itsas azalera ukitzen zuten.

«*Gureak egin du!*» —oihu egin zuen Zambecarrik eta zaku handi bat lasta hartu zuen eskuetan.

«*Arren!*» —deiadar egin zuen Andreolik.

—Ontzitxoak ura ukitzen zuen eta olatuak bularralderaino heltzen zitzaizkien.

«*Tresnak, arropa, dirua... dena itsasora!*»

—Aeronautek arropa guztiak erantzi zituzten. Globoa pisuz arinduta abiadura ikaragarritz goratu zen. Zambecarri botaka hasi zen modu izugarrian. Grossettiri odola erruz zerion izerdia bailitzan. Gizarajoez hitz egiteko modurik ez zuten, leher eginda zeudelako. Hotzak harrapatu zituen eta berehala izotz-geruza mehe batez estalita geratu ziren. Ilargia odola bezain gorria iruditzen zitzaien. Eskualde altu horietatik zehar ordu erdi batez edo ibili eta gero, aerostatoa berriro ere erori zen itsasora. Goizeko laurak ziren. Naufragoek gorputzaren erdia uretan zuten, eta globoak, belauntzia bailitzan, hainbat orduz arrastratu zituen. Egunsentian Pesaro agertu zitzaien aurrean,

kostatik lau miliara eta lehorreratzeko zorian zeudenean olatu-kolpe batek itasaso zabalera itzularazi zituen berriro. Ez zuten salbaziorik. Itsasontziek ihes egiten zieten, izaturik. Zorionez, nabigatzaile ikasiago bat hurbildu, bere ontzira eraman eta Ferrara-n lehorreratu zituen. Bidaia ikaragarria, ezta? Baina Zambecarri gizon ausart eta kementsua zen. Jasandako sufrimenduetatik suspertu orduko, berriz ere ekin zion aireratzeari. Igoaldi haietako batean zuhaitz baten aurka jo zuen; alkoholezko lanpara arropatik isuri zitzaion, suz inguraturik geratu eta globoa erretzen hasita zegoenean ozta-ozta ahal izan zuen lurrera erdi erreta jauzi egin. Azkenik, 1812ko irailaren 21ean, Bolognan beste igoaldi bat egin zuen. Zeraman globoak zuhaitz batean korapilatu eta kandela isurita suak hartu zuen berriro ere. Erori eta hil zen Zamberri. Eta egintza horien aurrean —erantsi zuen ezezagunak—, orandik ere zalantza egingo al dugu? Ez! Zenbat eta gorago, orduan eta loriosoagoa gure heriotza.

Geneuzkan objektu guztiez globoa arindurik, apreziatzerik ez geneukan altueraraino igo ginen. Aerostatoak atmosferan burrunbatzen zuen. Zaratarik txikienaz bazirudien zeruko gangak lehertzera zihoazela. Gure globoa —mugagabetasun hartan begirada finkatzen nuen leku bakarra—, hamaika zatitan apurtzeko zorian zegoen eta gure gainean izartegiko amildegiak ilunpetan galtzen ziren.

Bat-batean, ezazaguna zutik jarri zen nire aurrean, esanez:

—Ordua heldu da! Hil behar dugu! Gizonek arbuiatu eta mesprezatzen gaituzte. Zapal ditzagun!

—Urriki zaitez! —deiadar egin nion.

—Moztu ditzagun sokak. Bota dezagun ontzitxo espaziora. Erakarpen-indarra norabidez aldatu eta eguzki alderantz abiatuko gara.

Desesperazioak bizkortu ninduen. Zoroaren aurka oldartu nintzen, eta bortxa handiz borrokatu ginen; baina azpiratu ninduen eta, belauna nire bularraren aurka jarrita geldiarazten ninduen bitartean, ontzitxoaren sokak mozteari ekin zion.

—Bat... —esan zuen.

—Jainkoarren!

—Bi... hiru...

Ahalegin ikaragarria eginik, jaiki eta indar handiz egin nion aurre zoroari.

—Lau...! —hots egin zuen.

Ontzitxo amildu zen, baina ni jitez-edo globoko sokei helduta nengoan ordurako eta saremailetatik gora igo nintzen.

Zorua espazioan desagertu zen.

Globoak altuera itzela hartu zuen eta karraska izugarria entzun nuen. Gasa dilatatuegi zegoenez, estalkia lehertarazi zuen. Begiak itxi nituen.

Handik gutxira, berotasun hezeak bizkortu ninduen. Argiztasun handiko hodian artean nengoen. Globoak jiraka ari zen bertigo ikaragarria nigan sortaraziz. Haizearen jolas bihurtuta, ehun legoa orduko hartzen zuen horizontalki mugitzen zenean eta tximistak gure bidean gurutzatzen ziren.

Hala ere, nire erorketa ez zen azkarregia. Begiak ireki nituenean, lurra ikusi nuen. Itsasotik bi miliara nengoen eta haize-zirimolek indar handiz eramaten ninduten herrestan; halako batean, astinaldi gogor baten ondorioz, askatu egin nintzen. Eskuak zabaldu nituen; nire hatzetatik soka bat azkar-azkar labaindu zen eta lurrean nengoela ikusi nuen.

Ainguraren soka zen; lurreko gainazaletik arrastratu ondoren, pitzadura batean korapilatuta geratu zena, eta nire globoa, berriro ere arinduta, itsasoz harantzago joan zen galtzera.

Konortea berreskuratu nuenean, baserritar baten etxean etzanda nengoen, Harderwick-en,

Gueldres-eko herri txiki batean, Amsterdam-etik hamabost legoara, Zuyderzeé ibaiaren ertzetan.

Mirariz salbatu nuen bizia, baina nire bidaia zoro batek egindako zuhurtzigabekeria-multzo bat baino ez zen izan, saihesterik izan ez nuena.

Kontakizun ikaragarri honek —nire irakurleen irakasgarri— ez ahal ditu ninbo atmosferikoen esploratzaileak kikilduko!

AMAIERA